

# Emakumeak Zinemagintzan

**TORREZABAL KULTUR ETXEA**



## LOREAK

**ZUZENDARITZA:** Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño  
**ANTZEZLEAK:** Nagore Aranburu, Itziar Ituño, Itziar Aizpuru, Ane Gabarain eta Josean Bengoetxea  
**NAZIONALITATEA:** Espainia  
**URTEA:** 2014  
**IRAUPENA:** 99 min.  
**GENEROA:** Drama



## LOS FENÓMENOS

**ZUZENDARITZA:** Alfonso Zarauza  
**ANTZEZLEAK:** Lola Dueñas, Luis Tosar, Juan Carlos Vellido, Xúlio Abonjo, Faruco Castromán eta Miguel de Lira  
**NAZIONALITATEA:** Espainia  
**URTEA:** 2014  
**IRAUPENA:** 99 min.  
**GENEROA:** Komedia



## AGOSTO

**ZUZENDARITZA:** John Wells  
**ANTZEZLEAK:** Meryl Streep, Julia Roberts, Ewan McGregor, Benedict Cumberbatch, Abigail Breslin, Juliette Lewis, Dermot Mulroney, Chris Cooper eta Sam Shepard  
**NAZIONALITATEA:** EEBB  
**URTEA:** 2014  
**IRAUPENA:** 130 min.  
**GENEROA:** Komedia eta Drama

### Martxoak 3, asteartea

Ordua: 19:00. Prezioa: 2 €  
 Sarreren salmenta: **Lehiatilan eta Telekan**

Aneren bizimodua goitik behera aldatuko da, astero-astero, etxean lore-sorta bat jasotzen hasten denean. Beti ordu berean. Beti modu anonimoan. Lore misteriotsu batzuek aldatu egingo dituzte Lourdesen eta Tereren bizimoduak ere. Ezezagun batek lore-sorta bat utziko du astero, eurentzat hain garrantzitsua izandako norbaiten oroimenez. Hiru emakumeren istorioa da hau; lore-sorta xume batzuek goitik behera aldatuko dituzten hiru bizimodu. Lore horiek ahaztutat zituzten sentimenduak azaleratuko dituzte... Baina, azken batean, loreak baino ez dira.

### Martxoak 10, asteartea

Ordua: 19:00. Prezioa: 2 €  
 Sarreren salmenta: **Lehiatilan eta Telekan**

Emakume bat furgonetan bizi da duela hiru urte Almeriako kostaldean. Lanean hasi behar zen egunean bikotea desagertzen zaio. Traste guztiak jaso eta bere hartxoarekin Ferrolera bere jaioterrira bueltatzen da, A Coruña. Hasieran, lanan aurkitzeko zailtasun handiak dituen arren, azkenean igeltsero-peoi postua lortuko du. Ofizioaren gogortasunari adorez aurre egin ondoren, laster bere koadrila besteen artean nabarmentzen hasiko da lan egiteko aparteko gaitasunagatik.

### Martxoak 17, asteartea

Ordua: 19:00. Prezioa: 2 €  
 Sarreren salmenta: **Lehiatilan eta Telekan**

Weston familiaren oporraldiak topaleku idilikoa baino erabat bestelako zerbait izango dira. Gertaera ilun eta kontraesanek beteak bata bestearen atzetik jasotzen dira eta proban ipintzen dituzte. Weston familiako emakumeen bizitza desberdinei, haztean bereizi zituzten bideei begiratu bat da. Familia krisialdi batek berriro elkartzen ditu haurtzaroko etxean, Oklahoman, hazi zituen ama disfuntzionalarekin berriro aurkituko direlarik.